

Bigarren eskuko liburuak egongo dira salgai bihartik aurrera Algortan

Getxoko Bigarren Eskuko Liburu Azoka ospatuko da bihartik larunbatera bitartean Algortako Biotz Alai plazan, bigarren urtez, Getxoko Liburutegi Zerbitzuak antolatuta. Hiru egunetan zehar, bisitariek hainbat gaitako liburuak erosteko aukera izango dute. Iazko edizioan gertatu zen bezala, liburu salmentaren bidez bildutako dirua proiektu solidario batean erabiliko da. Aurten, Madagaskarreko lanbide-heziketako ikastetxe bat eraikitzea zuzenduko da, antolatzaileek adierazi dutenez. Liburu guztiek, norbanakoek liburutegiei emandakoak, prezio sinbolikoak izango dituzte, (euro batetik aurrera). Azokaren ordutegia ondokoa izango da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Lehenengo egunean arratsaldean baino ez da irekiko eta sarrera doakoa izango da. Bestalde, dagoeneko Getxo udalerriko kaleetan dira Letren Terrazak.

Oraingo honetan, 25.000 bat liburu jarriko dira salgai Bigarren Eskuko Liburu Azokan, udal liburutegiei emandakoak. Horiek guztiak banan-banan aztertzen dira, liburutegien bildumari zeintzuk gehitu dakizkiokeen erabakitzeko. Udal liburu-bildumara pasatzen ez diren hainbat liburu interesgarriak gerta daitezke publikoarentzat eta, hori dela eta, udal liburutegiek saltzea erabaki zuten, Getxoko lau udal liburutegietako garbiketan baztertutako aleekin batera. Horrela sortu zen Bigarren Eskuko Liburu Azoka iaz. Aurreko ekitaldian 10.000 bat liburu saldu ziren bertan eta onarpen zabala izan zuen.